



> Hormigoia «berrasmatzeko» proiektua



Javier Aizpurua Donostiako CFMko zuzendaria (Jon URBE | FOKU)

Berotze globala geldiarazteko hormigoia «berrasmatzea» helburu duen Miracle ikerketaren proiektuak Europako Batzordearen hiru milioi euroko finantziazioa jaso du Fet Open (Future Emerging Tech-



nologies) programaren barruan. EHUK jakinarazi duenez, proiektua Donostiako CFM Materialen Fisika Zentroko Jorge Sanchez Dolado ikertzaileak gidatzen du, eta goranzko be-

roketa globalaren testuinguruan, aurrerapen zientifiko eta teknologiko horrek eragin handia izan dezakeela nabarmendu du, «energetikoki neutroak diren eraikinak lortzeko edo CO2 aztarna murrizteko». «Miracle proiektuarekin hormigoia berrasmatu nahi dugu, metamaterial gisa funtziona dezan diseinatuz, kanpoko espazioari beroa kentzeko gai izan dadin», adierazi du Jorge Sanchezek. Ikerketa gauzatuko duen taldeak azpimarratu du proiektuan garatu beharreko zientziak eta teknologiak «paradigma berri bat» ireki dutela, eta horri esker «hormigoia eta zementua bezalako material xumeak goi mailako teknologiao metamaterial bihurtuko» direla.

CFMz gain, Nafarroako Unibertsitate Publikoak, Tecnaliak, Darmastadeko Unibertsitate Politeknikoak, Lovainako Unibertsitate Katolikoak (Ku Leuven), Microlight3D Unibertsitateak era Torinoko Unibertsitate Politeknikoak ere hartzen dute parte.



> Nekazaritza erreleboari buruzko jardunaldiak

EAEn populazio aktiboaren %1ek soilik jarduten du nekazaritzan, eta erreleboa hartzen duten pertsonen kopurua «era kezagarria» jaisten doa, EHUK dioenez. Egoera aztertzeko bi jardunaldi antolatu ditu datorren asterako. Eskualdeetan erreleborako ekimenak abian jartzeko aukerak ere aztertuko dira eta zenbait espe-



rientziari erreparatuko diote. Jardunaldiak online izango dira, hilaren 14an eta 15ean. Lehenengoa, doakoa eta edonorentzat irekia; bigarrena, berriz, Euskal Herrian erreleboa sustatu nahi duten erakunde publikoei zuzendua da, «euren eremu eta errealtatea kontuan izanik erreleboa nola landu dezaketen aztertzeko».



> Aretxabaleta, umorez, merkataritzaren alde

Umorea eta aldarrikapena uz-tartuta, “Brianen bizitza” fil-mari omenaldia egin diote Aretxabaletako merkatariek Gabonetan ere herritarrei ber-tako dendetan kontsumitzeko gonbitea egiteko.

Kepa Errasti aktore aretxa-baletarra da bere herriko merkatariek aurkeztu duten kanpainaren protagonista. Dendariak eurak ondoan di-tuela, “Brianen bizitza” film



ezaguna oinarri hartzen duen bideoa sortu dute, tokiko mer-kataritzari bultzada emateko.

“Always Look On The Bright Side Of Life” abestiaren ber-tsio berezi horrekin, aretxaba-letarrei Gabonetan ere herriko komertzioak babestu eta ber-tan kontsumi dezatela eskatu nahi izan diete.

“Bizipoza ez dusku inork eruengo” da spot horretarako hautatu duten leloa..

> «Altsasu»: errealitateak fikzioa gainditzen duenean


Asteazken gauean estreinatu zen ETB1en “Altsasu”, 2016ko urrian Altsasun izan ziren ger-takariak oinarri dituen telesai-la. Koxka tabernan bi guardia zibilekin eta haien bikotekidee-kin izan zen liskarrak herri ho-rretako zortzi gazterentzat izan dituen ondorio larriak konta-tzen dira, ikuspegi humano ba-tetik, aurkezpenean ETBko zu-zendariak azaldu zuenez.

Ikusmin handia zegoen, eta audientzia datuek baieztatu egin dute: %7,1eko kuota eta



57.000 ikusle lortu zituen, Dos30TV agentziaren arabera.

Sare sozialetan, euskal twi-terlarrien artean joera izan zen, Umap.eus atariaren ara-bera. Iritziak, kolore guztietakoak. Zenbat buru, hainbat aburu. Batzuek, esate batera-ko, sailaren tono «iluna» edo «polizia ona/polizia txarra» dikotomia izan dituzte hizpi-de. Iritziak iritzi, errealitateak fikzioa gainditzen du, eta ho-rrela gogoratu dute injustizia hori zuzenean jasan zutenek.



> Ekogudariak: denak euskaraz ekologiari buruz

Ekogudariak izena eman diote Muak.eus kolektiboaren bitar-tez hainbat artista eta norba-nakok sortutako proiektu be-rriri. Lurrarekiko harremana euskaraz eta euskaratik haus-nartzeko helburu duen ekime-na da, bideo bidez eta sarean zabaltzen ari dena.

Abenduaren 3an hasi zen, Euskararen egunean, eta hila-

ren 23ra arte bideo bat igoko dute bost egunean behin. Eko-logia, herri kantak, umorea eta errebeldia abiapuntu, Euskal Herriko erreferente kulturalai, sortzaile berriei eta ekologiare-kin konprometitu dauden pertsonai egindako elkarrizke-tak, umorezko esketxak eta kantak biltzen dituen bideo sorta zabaltzen ari dira.

